

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordeak 2021eko irailaren 23an hartutako erabakiaren laburpena; horren bidez deialdia egiten da 2021ean egoera oso larrian dauden herrialdeetako haurrak udan Amurrion hartzeko programetarako dirulaguntzetarako

DDBN(Identif.): 585471

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/585471>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntzak eskatu ahaliko dituzte deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten dituzten irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek, betekizun hauek betez gero:

a) Kasuan kasuko erregistroan formalki eratuta eta inskribatuta egotea, gutxienez eskaerak aurkezteko epea amaitu baino urtebete lehenagotik.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra edukitzea.

Eragin horietarako, ordezkaritza iraunkortzat hartuko da kasuan kasuko entitateak gizarte oinarria (bazkideak, boluntarioak edo antzekoak) duten egitura esanguratsuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituela agiri bidez frogatu ahal denean. Kasu honetan, ordezkaritza iraunkorrak bere gain hartzen du eskaerak aurkezteko erantzukizun zuzena, eta proiektuaren agiri multzoa, kontabilitatea eta kudeaketa partekatua Euskal Autonomia Erkidegoko bulegoan mantentzeko konpromisoa. Proiektuaren kudeaketa partekatua izango da hurrengoetan parte hartzea: proiektuaren identifikazioa, formulazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

c) Amurrioko Udalak finantzatu baditu aurreko deialdietan, proiektu horien kasuan kasuko likidazioak eta jarraipen txostenak ezarritako baldintzak beteta eta epealdiaren barruan aurkeztuta egon behar dira.

d) Deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten eskarmentua dutela frogatu behar dute, eta programatzen diren proiektuak, finantza laguntza jasotzen dutenak, gauzatzeko gaitasuna ere bai.

e) Gaitasuna edukitzea elkartasuna mugiarazteko, norberaren baliabideak eta baliabide pribatuak sortzeko nahiz beste instituzio edota erakundeetatik finantza laguntzak eskuratzeko.

Oinarri honen lehen paragrafoan aipatutako entitateek ezin dute eskatu dirulaguntzarik baldin eta estatutuak, egoera juridiko diplomatikoa edo beste inguruabarren bat dela-eta oinarri hauetan ezarritakoa eta, zehazkiago, 10. eta 12. oinarriek ezarritakoa bete ezin badute.

Deialdi honetara aurkezteko aukeratik kanpo geratzen dira beren-beregi izaera publikoko instituzioak edota erakundeak eta aurrezki erakundeak, baita irabazteko xedea duten enpresak eta bestelako erakundeak ere.

Oporraldietatik kanpo ere arrazoi humanitarioengatik aldi baterako harrerarako dirulaguntza eskatu ahal izango dute ondoko baldintza hauek betetzen dituzten familiek:

a) Lehenago irabazteko xederik gabeko antolakundeek sustatutako oporraldietako harrera programetan parte hartu izana.

b) Lehenago, programa horien bitartez, arrazoi humanitarioengatik zuzenean sustatzen duten harreraren gai den adingabea etxean hartu izana.

c) Eskumena duen administrazioaren adostasuna izatea (Arabari, Arabako Foru Aldundia-rena, bertako Adingabeen Kontseiluaren bitartez).

Hala eta guztiz ere, or har, dirulaguntza baten onuradun izan nahi dutenek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Dirulaguntzei buruzko Orokorraren, 13. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen bitartez, norgehiagoka araubidean, 2021eko programa hauek diruz laguntzea arautu da: egoera oso larriari dauden herrialdeetako umeak oporraldian Amurrioko udalerrian eta bertako familietan hartzeko programak. Irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek babesten dituzten programa horiek adingabe horien ongizatea sustatzen dute eta, gainera, gure udalerrian elkartasunaren kultura sortzen laguntzen dute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzen oinarri arautzaileak Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren VII. kapituluari daude jasota, eta 2021eko maiatzaren 28ko ALHAOn argitaratu ziren: 34. oinarria. Egoera oso larriari dauden herrialdeetako adingabeak Amurrioko udalerrian edukitzeko programetarako 2021eko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura arautzen duten ordenantza.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 6.000 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskararak aurkezteko epea

30 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2021eko irailaren 27a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA